

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko abenduaren batean, arratsaldeko zazpiak direnean, Ohiko Bilkura egitearren Irurtzongo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ezin etorria adierazi du Xabier Unanua Goicoecheak. Ez da etorri, eta ez du ezin etorria adierazi du Jose Peinado Cuestak.

AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko urriaren 13an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2009ko urriaren 13az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

2010 EKITALDIRAKO KARGA TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA TASAK

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, 2010erako 2009an indarrean egon diren karga-tasei, prezio publikoari eta tasei beren horretan eustea erabaki da, azken horiek 2008ko abenduaren 22an onartuak.

TOKIKO JABARI PUBLIKOAREN APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA HASIERA BATEAN ONARTZEA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, Honako hau erabaki da aho batez, hau da Udalbatzako kide kopuru legalaren erabateko gehiengoz: intereseko hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu berezia egiteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga-ordenantza hasiera batean onartzea.

XEHETASUN AZTERKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, 2. poligonoko 347 zenbakidun katastro-lursailaren xehetasun-azterketa, Xabier Unanua Goicoecheak sustatua, behin betikoz onartzea erabaki da aho batez.

Puntua hasita Osoko Bilkuren aretoa utzi du Goicoechea jaunak, eta berriro ere sartu da puntua amaituta.

ESKOLA GARRAIOAREN INGURUKO PROIEKTUA

2009-2010erako eskola-garraiorako proiektuari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2009ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, aipatu proiektua onartzea erabaki da aho batez.

GARAPENERAKO LANKIDETZA PROIEKTUAK DIRUZ LAGUNTZEKO OINARRIAK ALDATZEA

Gizarte Ongizate Batzordeak 2009ko azaroaren 30ean egindako bilkuran onartutako proposamenarekin, aho batez erabaki da garapenerako lankidetzaproiektuak diruz laguntzeko oinarrietan honako aldaketa hauek egitea:

- 3. artikuluan ondoko testua jasoko duen paragrafoa gehitzea:

"Elkartasun-erakunde edo talde bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahal izanen du".

- 5. artikuluko 5. puntuko lehen paragrafoaren ondoren ondoko testua jasoko duen beste paragrafo bat gehitzea:

"Tokiko talde edo elkarte gisa hartuko dira Irurtzunen erroldatuta dauden pertsonak aurkeztutako proiektuen sustatzaileak, aipatu elkartasun-erakundeen bazkide edo laguntzaile direla bermatuta."

EUSKARA ARLORAKO DIRU LAGUNTZAK

Euskara Batzordeak 2009ko azaroaren 16an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, honako hau erabaki da aho batez:

1.- Euskara ikasteko ondoren aipatzen diren diru-laguntzak ematea 2009ko aurrekontuaren 4510 48201 kontu-sailaren kargura:

- 56,06 euro Oihana Amezketa Galartzari.

- 47,78 euro Ana Santander Lizasori.

2.- Atakondoa ikastetxe publikoari 2.407,44 euroko diru-laguntza ematea 2009-2010 ikasturterako Euskaraz Mintza programa garatzeko, 2009ko Aurrekontuko 4510.22611 partidaren kargura.

KULTURA ARLORAKO DIRU LAGUNTZAK

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko azaroaren 26an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, aho batez onartu da 1.200,00 euroko diru-laguntza ematea Erraldoien Konpartsari, 2009ko Aurrekontuko 121 489 partidaren kargura.

"JOSEFINA ARREGUI" ZENTROARI BURUZKO ADIERAZPEN PROPOSAMENA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko urriaren 29an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, aho batez onartu da "Josefina Arregui" gune psikogeriatrikoaren inguruko honako adierazpena:

"ARFE-Felipe Lecea' fundazioa Nafarroako Foru Erkidegoan 'Josefina Arregui' gune psikogeriatrikoa kudeatzen duen eta horren titular den irabazi asmorik gabeko erakundea da. Zentroak egonaldi laburrerako ospitalizaturik dauden gaixo psikogeriatrikoei laguntza sanitarioa ematen

die, beste hainbat zerbitzuren artean, batez ere, zaintza somatikoa behar duten dementzia-sindromea (Alzheimer edo bestelakoak) eta bestelako asaldura psikiatrikoak dituztenei. Gaur egun, Nafarroan halako gaixoei laguntza ematen dien osasun-zentro espezializatu bakarra da.

Irurtzungo Udalak zentroak azken 15 urteotan egin duen lan profesionala eta eman duen zerbitzua aintzat hartzen du; izan ere, zentro aitzindaria eta erreferentea da geriatrian eta zehazki dementzia duten gaixoekin lanean. Halaber, Sakanan dugun zerbitzu espezializatu bakaretakoa dela azpimarratu behar dugu.

Nafarroako Gobernuak, eta zehazki Osasunbideak, 2009ko abenduaren 31n bukatuko den hitzarmena sinatu zuen 2006an aipatu fundazioarekin. Aipatu hitzarmenak soilik egonaldi motzeko ospitalizazio-zerbitzuaren zati bati eragiten dio. Ez dago hitzarmenaren barnean zentroak ematen duen kanpo-kontsulten zerbitzua, ezta horren beharrezkoa dugun, eta ibarrean bakarra den Eguneko Zentroa ere.

Udal honen iritziz, hitzarmenaren negoziazio berrian bada garaia finantziario-eredu egonkor bat finkatzeko, bai ospitalizazioari dagokionez, baita kanpo-kontsultei eta Eguneko Zentroari dagokienez ere, "Josefina Arregui" zentroak orain arte eman dituen zerbitzuak berma ditzan; izan ere, onuradunak ez dira soilik Sakanakoak, Nafarroa osokoak baizik. Ez dugu ulertzen, eta ez gaude ados, halako ezaugarriak dituen zentro bat nola egon daitekeen zonaldeko enpresen diru-laguntzen edo NAKren "Zuk aukeratu, zuk erabaki" programako diru-laguntzen baitan, kontuan hartuta osasunaz eta ospitale-laguntzaz ari garela.

Horregatik guztiarengatik, Irurtzungo Udalak honako hau adierazten du:

1.- Irurtzungo Udalak eskatzen dio Osasunbidea-Osasun Departamentuari "Josefina Arregui" zentro psikogeriatrikoko egonaldi laburreko ospitalizazioaren osasun-laguntza guztia bere gain hartzea.

2.- Irurtzungo Udalak Osasunbidea - Osasun Departamentuari eskatzen dio 2010etik aurrera kanpo-kontsulten zerbitzua ahalbidetu dezala, "Josefina Arregui" zentro psikogeriatrikoan ematen den zerbitzu horren kostua bere gain hartuz.

Irurtzungo Udalak Osasunbidea - Osasun Departamentuari eskatzen dio "Josefina Arregui" zentroan kokatuta dagoen Eguneko Zentroarekin hitzarmena sina dezala, dagoeneko erabilgarri dagoen baliabidea hori aprobetxatuz, zonalderako horren garrantzitsua den zerbitzu hori bermatze aldera.

Halaber, Udal honek Gizarte Gaietarako Departamentuari eskatzen dio, Mendekotasunari buruzko Legea betetz, Eguneko Zentroen leku-premien azterketa egin dezala, eta horren arabera, Eguneko Zentroa handitzeko aukera balora dezala, ibarreko herrietako premiak asetze aldera.

4.- Adierazpen hau Mankomunitatearen Batzar Nagusira bidaltzea adierazpenarekin bat egin dezan, baita ibarreko gizarte-zerbitzuen mankomunitateetara, osasun-kontseilariari, Gizarte Gaietarako kontseilariari, eta gizarte-hedabideei ere."

Akordioa onartuta, De la Calle jaunak adierazi du UPN udal-taldeko kideek akordioaren alde bozkatu dutela nahiz eta Nafarroako Parlamentuak onartutako plan estrategikoak gaia aztertzen duen.

SAHARAR HERRIAREN AUTODETERMINAZIO ESKUBI-DEAREN ALDEKO MOZIOA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko azaroaren 26an egindako Bilkuran onartutako proposamena aztertuta, Nafarroako saharar ordezkariak bultzatutako adierazpen hau onartzea erabaki da aho batez:

"Saharar herria tragedia pairatzen ari da 1975az geroztik. NBEk makina bat ebazpen hartu ditu behin eta berriro eskubide hori aitortuz, eta berretsi du bidezko konponbide baketsua bilatu beharra dagoela, saharar herria autodeterminazio-eskubidea gauzatzera eramane duena, eta deskolonizazio-prozesu amaitu gabeari bukaera eman.

Espainiako Estatuak prozesu horretan duen erantzukizun politiko, historiko eta moralaz jabeturik, udal honek honako hauen aldeko aldarria egiten du:

- Saharar herriak zilegi dituen eskubideen alde agertzea eta sostengua ematea, eta Espainiako Gobernuari eskatzea NBEren aitzinean saharar herriaren erabakitzeko eskubide askearen aldeko bake-plana defendatzen jarrai dezala.

- Behin eta berriro azpimarratu nahi dugu Mendebaldeko saharar herriaren afera amaitu gabeko deskolonizazio-prozesua dela, eta Nazioarteko Zuzenbidearen arabera konpondu beharra dagoela.

- Exijitzen dugu Nazio Batuen eta Mendebaldeko Saharako herrirako Afrikako Batasunaren Konponbide Plana ezartzea, eta gatazkan diren bi aldeek onartutako eta sinatutako Houstoneko Akordioak betetzea.

- Exijitzen dugu Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza eskubideak errespetatzea, eta saharar preso politiko guztiak aske uztea, eta, bereziki, aitortzea Aminiteu Haidar-ek eskubidea duela bere herrialdera, Mendebaldeko Saharara, itzultzeko. Halaber, bere herrira itzuli arte gose-greba egiteko hartutako erabakia dela-eta, gure sostengua helarazi nahi diogu. Desagertutako 500 zibil baino gehiago eta 151 gerrako gatibu non diren jakitera emateaz gain (halaxe eskatu baitute giza

eskubideen defentsarako erakundeek), ezinbestekoa da lurralde okupatueta behatzaileen ordezkariak eta hedabideak libre sartu ahal izatea, eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari eta nazioarteari eskatzea beharrezkoak diren neurriak har ditzatela MINURSOren agintaldia al bait azkarren luzatzeko, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza baliabideak bermatze aldera.

- Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan bizi-baldintza penagarrietan irauten duten saharar herriari bideratutako elikagaiak eta lankidetzak areagotzea, bertan bizi direnen bizi-kalitate bortitza arintzeko, eta elikagai- eta heziketa-premiak. eta kanpamenduetan egoteko leku-premiak asetze aldera."

Akordioa onartuta, Murugarren jaunak jasota utzi nahi du Espainiako Gobernuak zer-nolako utzikeria egin duen saharar herriarekiko, Espainiak deskolonizazio-prozesuan izan duen eta gaur egun duen erantzukizuna kontuan hartuta.

NAFARROA BAI - IRURTZUN BAI TALDEAREN MOZIOA, ZERGAK AREAGOTZEAGATIKO DIRU SARREREN NORAKOARI BURUZKOA

Ogasun, Industria, langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartutako proposamena aztertuta, jarraian jasotako mozioa, Nafarroa Bai - Irurtzun Bai taldeak aurkeztua, onartzea erabaki da Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas, eta Murugarren jaunen, eta Ongay eta Arruabarrena andreen aldeko bozarekin. Aurka bozkatu dute De la Calle jaunak eta Uterga andreak.

“Une honetan eztabaidatzen ari dira, eta datozen hilabeteotan onartuko dute Madrilen estatuaren Aurrekontu Orokorra eta zerga-neurriak.

Nafarroa BAI argi agertu da Estatuako Gobernuak zeharkako zergetan (esate baterako eta nagusiki BEZ zergaren igoera) 2010erako ezarri nahi duen igoeraren aruka. Aipatu BEZ zerga Nafarroan nahitaez ezarri beharrekia izanik (halako zergetan Nafarroak ez baitu erabateko autonomiarik, ezta arautzeko gaitasunik ere), Nafarroako Gobernuak 110 milioi euroko sarrera aurreikusten du. Diru-sarrera hori ongizatea eta zerbitzu publikoak bermatzera bideratu behar da, eta aipatu zerbitzuak ematen dituzten administrazioen artean banatu behar da.

Ekonomi krisiaren eta ekoizpen- eta merkataritza-jardueraren gainbeheraren ondorioz, udalek nabarmen jaitsi dituzte diru-sarrera arruntak. Diru-sarrera horiek eman diete betidanik gutxieneko

egonkortasuna udalei, hauek oinarrizko makina bat zerbitzu bermatzeko herritarrei.

Era berean, BEZ zerga igotzearen ondorioak (ezkerrak krisiaz duen ikuspegiaren eta emanen lukeen erantzunaren kontrakoa) gure udalerrietako herritar guztiek pairatuko dituzte.

Hori dela-eta, Nafarroa Bai – Irurtzun Bai udal-taldeak honako mozioa aurkeztu du:

- Udal honek Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari eskatzen die zeharkako zergetan presio fiskala areagotzearen ondorioz diru-sarrerak areagotuz gero, aipatu igoeraren % 40 toki-entitateei egiten zaizkien transferentzia arruntetara bideratzea.

- Transferentzia arruntan aipatu igoera udalen diru-sarreraren galera orekatzera bideratu beharko da, eta ematen diren oinarrizko zerbitzu publikoak bermatzera. Halaber, ekonomi krisiaren eta honen egoera sozialen ondorio diren zailtasun-egoerak arintzera bideratu beharko da.

- Akordio hau Nafarroako udaletara, Nafarroako Gobernura (Toki Administrazioa) eta prentsara igortzea.

Eranskina: BEZaren behin betiko ekarpena 110 milioi euro bada, horren % 40: 44 milioi. Gaur egun Nafarroako 620.377 biztanle ditu. Gutxi gorabehera biztanleko 71 euro."

De la Calle jaunak UPN udal-taldearen aurkako botoaren zergatia azaldu dute; gai korapilatsua da, eta, edonola ere, Nafarroako Gobernuan ebatzi beharrekoa.

NAFARROA BAI - IRURTZUN BAI UDAL TALDEAREN MOZIOA, HONDAMEN NATURALEK KALTETUTAKOEI BIDERATU BEHARREKO LAGUNTZEN FORU LEGEARI BURUZKOA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2009ko azaroaren 26an egindako Bilkuran onartutako proposamena aztertuta, Nafarroa Bai – Irurtzun Bai Udal Taldeak sustatutako honako mozioa onartzea erabaki da aho batez:

“Nafarroako Gobernuan Nafarroako herritarrek hondamendi naturalak gertatzen direnean pairatu behar izaten dituzten ondorioak arindu asmo dituen lege berri bat bideratu da.

Legearen xedea da uholdeek, haize-bolada bortitzek eta bestelako fenomenoek kaltetutako pertsona fisiko eta juridikoei laguntzak eta onurak bideratzeko esparru orokorra definitzea, laguntzak albait azkarren bideratzea lortu asmoz.

Horrez gain, atzeraeraginezkotasunez eta salbuespenez, legeak kontuan hartu ditu 2009ko otsailean uholdeak kaltetutakoak, eta ekainaren 30ean Valdegan, Metauten Ibarrean eta Allin eta Ameskoa zonaldeetan izandako kazkabarrak kaltetutakoak.

Irurtzun Bai - Nafarroa Bai udal-taldearen iritziz legearen atzeraeraginezkotasunak aurtengo maiatzaren 24an Irurtzunen izandako kazkabarra ere hartu beharko luke barne. Izan ere, kazkabarrak herritar ugariren etxebizitzetako teilatuak eta autoak, nagusiki, kaltetu zituen.

Osoko bilkurari honako proposamena onartzea eskatzen diogu:

- Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari eskatzea Irurtzunen eta Nafarroako beste hainbat udalerritan maiatzaren 24an izandako kazkabarrari atzeraeraginezko izaera eman diezaiola, Irurtzungo herritarrek ere laguntzak jaso ahal izan ditzaten.

- Akordio honen berri ematea Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuari.

- Akordio hau hedabideetara igortzea.”

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago besterik.

GALDE-ESKEAK

Murugarren jaunak, EAE-ANV hautagai zerrendan aukeratutako zinegotzien izenean, pasa den egunotan Euskal Herriko 35 gazte atxilotu izana salatu du. Gertakari horrekin lotu du Guardia Zibilak Irurtzungo herrigunean 4 gazte metrailetaz atxiki izana, argi eta garbi geratuz errepresioa areagotuz ari dela. Azkenik, indarkeriaren gaitzespen anitzen atzean dagoen hipokresia salatu du. Horren lekuko Leitzako Guardia Zibilak ustez izan zuen atentatua, muntaia besterik izan ez den atentatua.

Iriarte jauna bat dator Murugarren jaunak esandakoarekin.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hogeita bos minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.